



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
Iruñerriko ibai parkearen
erabilera arautzeko ordenantza
.....

IRUÑERRIKO IBAI PARKEAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

SARRERA

Iruñerriko Ibai Parkea herritarren jolas eta aisia gune moduan martxan jartzea 2000ko urtarrilean izen berarekin sortu zen partzuergoaren esku egon zen, eta partzuergo hori osatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Burlata, Atarrabia, Uharte, Zizur Nagusia, Barañain, Egues, Ezkabarte eta Esteribar udallerriek.

Partzuergo horren plangintzaren eta kudeaketaren arabera, aurreneko fase batean, 22 kilometroko pasealekua egokitu zen, eta oinzubiak eta jolaserako eremuak egin ziren. Era berean, aurreneko fase horretan egin ziren Atarrabiako Pilategia berritzeko eta egokitzeko lanak, informaziorako eta sentsibilizaziorako zentro izateko.

2007an, inplikaturak zeuden erakundeek hala nahi zutelako, erabaki zen handik aurrera Iruñerriko Mankomunitateak hartzea bere gain ibai parke honen kudeaketa eta garapen berria.

Bigarren etapa horretako lehen lan moduan, San Andres Errota berritzeari ekin zitzaion, Arga eta Ultzama ibaiek bat egiten duten tokian. Nafarroako Gobernuaren eta Europako FEDER funtsen laguntzarekin, 2011n Parkeko informaziorako eta sentsibilizaziorako zentro bihurtu zen.

Eskualdeko izaera duen azpiegitura berde gisa Ibai Parkea sendotzeko asmoarekin, 2009an, asmoak biltzeko dokumentu bat sinatu zen Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioarekin, parkea zabaltzeko. Lehen mugarrira Arzuriko Erdi Aroko zubia berritzea izan zen, Arga ibaiaren gainekoa, eta ministerio horrek finantzatu zuen. Aurreikusita dago 2014an lanak jarraitzea, pasealekua Oltzako Zendeako herri horretaraino iritsi ahal izateko.

Denbora honetan, Parkeko azpiegiturak garatzen eta zabaltzen joan diren aldi berean, **hiri berdegunearen** hasierako kontzeptua aldatzen eta bilakatzen joan da askoz ere zabalagoa den beste baterantz; soil-soilik jolaserakoak direnak baino harago doazen zerbitzuz eta eginkizunez hornitzen duen **azpiegitura berde** bati dagokion kontzepturantz, zehazki. Egun, eginkizun horien artean hauek nabarmendu behar dira: erregimen hidrologikoa erregulatzen laguntzea, airearen kalitatea hobetzea, erregulazio klimatikoa eta mugikortasun iraunkorrerako gunez hornitzea.

Beste alde batetik, ibai pasealekua lineala izateak, eskualdeko ibaien luzera osoan joateak, **sare berde** baten izaera ematen dio eta indar ekologikoa indartzen, naturari jarraitutasuna ematen baitio eskualdeko hiri egituran. Horrek bioaniztasuna handitzen du, eta bai CO₂ gasaren eta beste elementu kutsatzaile batzuen isurbide eginkizuna ere.

Asmo eta nahi horiek bat egitea, sinergikoki bat eginda, funtsezkoa da XXI. mendeko Iruñerria antolatzeko lurralde honetan bizi garen herritarren premiei erantzutean.

Ordenantza honen beharra

Mota honetako azpiegiturretan ohikoa den moduan eta Parkean dagoen jardun handiaren ondorioz, gertakari eta gorabehera ugari gertatu ohi da eta, horrenbestez, komenigarria da arautzea, bateragarriak egin ahal izateko erabilera desberdinak eta ingurune honen babes eta begiratze egokia.

Horixe adierazi izan dute, bai kide diren tokiko erakundeek, bai eta erabiltzaileek ere. Izan ere, gogobetetasun inkesten bidez –aldi berean, nabarmendu behar da gogobetetasun maila handia dela (7,9 10etik)–, hobetzeko eremu hauek azaldu dira:

- Oinezkoen eta txirrindularien bizikidetzak
- Bizikidetzak, elkarrekin ibili behar izatea, txakurrekin
- Baratzezainen ibilgailuak ibiltzea baimendutako tarteeetan
- Itxiturak jartzea lursail partikularretan pasealekuaren ertzetan
- Txirrindularien gehiegizko lastertasuna...

Horrenbestez, egokia da Parkea tresna batez hornitzea herritarren kezka horiek aintzat hartzeko eta, era berean, Parkearen eremuan kide diren udalerririk desberdinetan irizpideak bateratzeko. Horixe da ordenantza honen nahia eta helburu horretarako aurkeztu da onartua izan dadin.

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da Iruñerriko Ibai Parkearen erabilera arautzea, egon daitezkeen erabilera desberdinen, haien artean, eta eremu honen babes eta begiratze egokiaren bateragarritasuna lortze aldera.

2. artikulua. Mankomunitatearen eskumenak

Iruñerriko Mankomunitatea toki erakundea da, elkarte izaera duena, eta helburua du zenbait zerbitzu baterako ematea, horien artean Iruñerriko Ibai Parkea kudeatzea.

Bere eskumenen barnean, Mankomunitateari dagozkio Tokiko Administrazioaren Foru Legeak Nafarroako udalerriei ematen dizkien ahalmenak eta eskumenak.

3. artikulua. Arauen esparrua eta lurraldekoa

Iruñerriko Ibai Parkeko erabiltzaileek ezinbestean bete beharko dute ordenantza hau, alde batera utzirik parkea osatzen duten udal barrutietako bakoitzean dagokion ordenantza aplikatzea. Hain zuzen ere, udal barrutietako ordenantza horiek nagusitu egingo zaizkio honi, gatazkarik gertatzen bada.

Parkearen erabilerek eta funtzionamenduak ordenantza honetan ezarritakoari jarraituko diote, lurraldea eta ingurumena antolatzeke legeriari, eta bai aplikatzekeoak zaizkien antolamendu tresnei ere.

Ordenantza hau aplikatzeko lurralde esparrua bat dator Mankomunitatearen barnean dauden udalenekin zerbitzu hau kudeatzeko eraginetarako.

II. KAPITULUA. Ibai Parkearen erabilerak

4. artikulua. Erabilera onartuak

Oinezkoen eta txirrindularien zirkulazioa. Oinezkoek dute lehentasuna zirkulatzean, eta, ondorioz, txirrindulariek eta patinak, monopatinak edo antzeko ibilgailuak dituztenek uneoro gorde behar dute oinezkoen segurtasuna guztiz bermatzeko moduko distantzia. Ezin izango da inolaz ere orduko 10 kilometroko lastertasuna gainditu.

5. artikulua. Baimendu daitezkeen erabilerak

1. Ibilgailuen zirkulazioa, soil-soilik aisiarako baratzeen eta nekazaritzako lursailen jabeen zerbitzurako. Mankomunitateak identifikazio txartel bat jarriko du jabe horien esku eta dagokien ibilgailuan kokatu beharko dute, ikusteko moduan.
2. Ibilgailu berezien zirkulazioa (ibilgailu astunak) eta ohiz kanpoko nekazaritzako lanak.
3. Beste batzuen obrak, pasealekuari eta jolas eremuei eragiten dietenak.
4. Zaldizkoen eta animaliek daramatzaten gurdi-orgen zirkulazioa. Donejakue bidearekin bat egiten duten tarteetan ez da eskatuko baimen hau.
5. Jolas eta kirol jarduerak, baimenduta dauden erabilerekin bateragarriak direnak.
6. Jan-edanak saltzeko jarduerak.

Jarduera horietakoren bat gauzatu nahi duten pertsonak baimena eskatu beharko dute, gutxienez, 15 egun lehenago, eta Mankomunitateak epe berean erabaki beharko du baimendu edo ez. Mankomunitateak ez badu iritzirik azaltzen aipatutako epe horretan, ulertuko da jarduera egiteko baimena emanda dagoela.

Jan-edanak saltzeko baimenak, berriz, salmenta hori egin nahi den udal barrutiko udalari eskatu beharko zaizkio.

6. artikulua. Erabilera debekatuak

Ondorengo erabilera hauek espezifikoki debekatuta daude:

1. Parkean zirkulatzea edozein ibilgailu motordunekin, motorrekin, motozikletarekin, autorekin, traktorerekin eta abarrekin. Debeku honetatik kanpo daude mugikortasun murriztua duten pertsonak beharrezko dituzten gurgildun aulkiak.
2. Parkean txakurrak lotu gabe eramatea, haiek ibiltzeko egokituta dauden tokietatik kanpo, eta ez botatzea txakurren gorozkiak dagokien edukiontzietan.
3. Bizikletetarako eta ibilgailu baimenduetarako orduko 10 kilometroko lastertasun muga gainditzea.
4. Baimenik ez duten materialekin eta ibilgailuekin pasealekua eta jolas eremuak okupatzea, edonola egiten dela ere.
5. Sua piztea, horretarako egokituta dauden tokietan izan ezik, eta baldin eta urbanizagarria ez den lurzoruan sua erabiltzeko dagokion foru araudiak debekatzen ez badu.
6. Parkean isurtzea hondakin toxikoak eta/edo arriskutsuak, hiri hondakinak, eraiste lanetako hondakinak, ur zikinak, deseginak, paperak, plastikoak eta abar.
7. Jokaera bandalikoak, pintaketak, grafitiak, inskripzioak, kartelak; Parkeko hiri altzariak haustea edo hondatzea, barne hartuta informaziorako eta sentsibilizaziorako zentroak.
8. Parke osoan dauden landareak, direla zuhaitzak, zuhaixkak edo beste espezie batzuk, modu bandalikoan tratatzea edo erabiltzea.
9. Jan-edanak saltzeko jarduerak, baimenik izan gabe.
10. Bozgorailuak eta edozein motatako ikus-entzunezko tresnak erabiltzea, baimenik izan gabe.
11. Parkeko edozein tokitan baimenik gabe kanpatzea.
12. Edozein animalia espezieri eragoztekoa edo jarraika ibiltzea.

III. KAPITULUA. Araubide juridikoa eta zehapenak

7. artikulua. Xedapen orokorrak

Mankomunitateak zainduko du Parkea ongi mantenduta egotea, eta egoera onari eta erabilerari kalte egiten dioten ekintzen aurka joko du.

Ordenantza honetan ezarritakoa hausten bada, dela eginez dela ez eginez, zehapena jarriko da, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera, alde batera utzirik erantzuleek izan dezaketen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoa, eta exijitua izango da, bere kasuan, dagokion instantzian.

Erantzukizuna solidarioa izango da, araua hautsi dutenak bat baino gehiago badira eta bakoitzaren parte-hartzea norainokoa izan den zehazterik ez badago.

Mankomunitateko Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek eskumena du zehapenak ezartzeko. Dagokion prozedura Zehatzeko Ahalmena erabiltzeko Prozedurari buruzko Erregelamendua onetsi zuen abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuaren arabera gauzatuko da.

Arau-hausteen eta zehapenen sailkapena

8. artikulua. Arau-hauste oso larriak

1. Parkeko eta/edo jolas eremuetako altzari elementuak larri eta nabarmen hondatzeko ekintzak.
2. Zuhaitzei eta landareei kalte oso larriak eragitea.
3. Zirkulazioa zailtzen duten edo osasungaitzasun arriskuak eragiten dituzten zaborrak edo hondakinak botatzea.
4. Parkean zirkulatzea edozein ibilgailu motordunekin, motorrekin, motozikletarekin, autorekin, traktorerekin eta abarrekin.
5. Pasealekuri eta jolas eremuei eragiten dieten beste batzuen obrak egitea, dagokien baimena izan gabe.
6. Sua piztea, horretarako egokituta dauden tokietatik kanpo.

9. artikulua. Arau-hauste larriak

1. Parkeko eta/edo jolas eremuetako altzari elementuak larri hondatzeko ekintzak.
2. Zuhaitzei eta landareei kalte larriak eragitea.
3. Txirriindulariak zirkulatzeko ezarrita dagoen orduko 10 kilometroko lastertasuna nabarmen gainditzea.
4. Oinezkoen segurtasuna bermatzeko txirriindulariek gorde beharreko distantzia ez gordetzea eta nabarmen asaldatzea oinezko horiek.
5. Jan-edanak saltzeko jarduerak gauzatzea, baimenik izan gabe.

6. Lotu gabe eta/edo muturrekorik gabe eramatea animalia arriskutsuak izatea arautzen duten arauak arriskutsutzat jotako txakurrak.
7. Ibilgailuekin zirkulatzea, dagokien baimena izan gabe.
8. Ibilgailu bereziekin zirkulatzea (ibilgailu astunak) eta ohiz kanpoko nekazaritzako lanak egitea, baimenik izan gabe.

10. artikulua. Arau-hauste arinak

1. Parkeko eta/edo jolas eremuetako altzari elementuak hondatzeko ekintzak eta pintaketak.
2. Zuhaitzei eta landareei kalteak eragitea.
3. Parkeko edozein tokitan baimenik gabe kanpatzea.
4. Zaborrak botatzea edo uztea, pixa egitea, kaka egitea edo txistu botatzea Parkeko edozein lekutan.
5. Oinezkoen segurtasuna bermatzeko txirridulariek gorde beharreko distantzia ez gordetzea.
6. Txakurrak lotu gabe eramatea.
7. Ez garbitzea lagungarriko animalien gorozkiak.
8. Zaldizkoen eta animaliek daramatzaten gurdi-orgen zirkulazioa, Donejakue bidearekin bat egiten duten tarteetan izan ezik.
9. Jolas eta kirol jarduerak egitea, baimenik izan gabe.
10. Jan-edanak saltzea, baimenik izan gabe.

11. artikulua. Zehapenak

1. Arau-hauste arinek 60 eta 199,99 euro arteko zehapena izango dute.
2. Arau-hauste larriek 200 eta 599,9 euro arteko zehapena izango dute
3. Arau-hauste oso larriek 600 eta 1.500 euro arteko zehapena izango dute.

Ordenantza honetan adierazten diren bidezko zehapenak ezartzean, bestelakotu den egoera lehengoratzeko eskatuko zaio arau-hausleari. Arau-hausleek eragindako kalte-galerak erantzuleek konpondu edo ordainduko dituzte beti.

Derrigortuaren kontura egingo ditu egin beharrekoak gauzak arau-haustearen aurreko egoerara lehengoratzeko, non ez dituen arau-hausleak ordurako egin. Derrigortuari kostua eskatzeko, antolamendu juridikoan ezarritakoari jarraituko zaio.

Aurreko artikuluetan aipatutako ekintzei edo Parkean egin litezkeen beste batzuei dagokienez, ingurumena babesteko legeetan, lurralde antolamendukoetan, zirkulaziokoetan, animalia arriskutsuak edukitzeoetan edo Parkean sartuta dauden udalen ordenantzetan sailkatuta daudenei, ordenantza hau oinarrituko da haietan aurreikusitakoan. Haietan hauek finkatzen dira: arau-hausteen zerrenda eta dagokion mailaketa, erantzukizuna duten pertsonak, zehapenak eta berauek ezartzeko irizpideak, eskumenak, prozedura, preskripzioa eta zehapen araubideek izan ohi dituzten gainerako atalak.

Ibai Parkean sartuta dauden udal barrutietan, ordenantza honetan bildu diren gaiekin bat datozenak arautzen dituzten xedapen orokorrak dituztenetan, lehenak aplikatu beharko dira.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lursailen itxiturak

Lursailen itxiturak dagokien tokiko ordenantzetan ezarrita dagoena gorde beharko dute, eta ezin izango dute gainditu zolatuta dagoen eremutik gutxienez metro batera egoteko distantzia.

Itxitura horiek egiteko materialak egokiak izango dira Parkeak duen natura eta ibai izaerarekin bat egiteko.

Debekatuta dago edozein elementu ebakitzaila edo erabiltzaileei kalteak egiteko modukoa erabiltzea.